

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Proiektua ikastetxeei zuzendua dago, beraz argi dago kontsumitzaileak adin gaztekoak izango direla. Gure proiektuak aurrerapausoak emateko beharrezkoa ikusten dugu komunikazio egokia edukitzea bezeroekin, eta horretarako **sare-sozialei** garrantzia handia emango diegu. Bertatik, dagoeneko gure zerbitzuaz gozaten duten gazteei informazio gehigarria helaraziko diegu, eta oraindik hizketaldietara hurbildu ez diren edota webgunea erabili ez dituzten gazteak erakartzeko ekintzak egingo ditugu.

Oso garrantzitsua da ikastetxetan irudi ona ematea eta hasiera batetik ahalik eta ikasle gehienei konbentzitzea, beste klasekideei proiektuari buruzko iritzi ona emateko eta ikastetxe guztia erakartzeko. Tratua eta zerbitzua hain pertsonal eta indibiduala denez, nahiz eta kolektiboki hizketaldiak eman, guretzat funtsezkoa da erlazio ona eta arina edukitzea gazteekin.

Funtsezkoa da argi eta garbi definitzea gure enpresak bezeroekin nolako harremana ezartzea nahi dugun. • Harreman mota hori izan daiteke pertsonala eta aurrez aurrekoa , web-aplikazioak edo erantzungailu automatikoak erabiliz.

Gure harremana bi motatakoa izango da, presentziala zein online-a. Oso gai “tabú”-a denez, pentsatzen dugu gazteekin sare sozialen bidez ere komunikatzea garrantzitsua izan daitekela, mutil-neska lotsatiei ere aukera emateko gurekin harremanetan egoteko. Esan bezala, oso garrantzitsua da guretzat harremana pertsonala eta estua izatea, beraien konfidantza irabazteko eta ahalik eta arazo/kezka gehienak bildu eta erantzun ahal izateko. Web-orriaren bidez lan egingo dugu, baina harreman pertsonalean eta errealean ere landu beharko dugu nahi dugun helburua lortu ahal izateko.